



JAKES LARRE

Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA ♦

Ezberdina

LERRO HAUEK publikatzean –zenbait astez beste egiteko batzuetan aritu ondoan– lanera itzulia izan naiz. Joatean, borta zerratu nuen hainbat galderekin, eta momentu honetan nago ea zer aldatua ote den tarte horretan, zerbait aldatu bada. Azken hilabeteetan abiatu ekimenek nolako geroa dute? Lurralde antolaketa eta lekuko kompetentzia, euskararen geroa, hizkuntzen Euro-karta eta beste. Egunerokotasunean buru-belarri ari, inpresioa da deus ez dela aldatzen, deus ez gertatzen, fosilizaturik preso gaudela. Bizkitartean...

Hautetsien Kontseiluan gehiago zabala Iparraldearentzat Lurralde Elkargo espezifiko baten alde agertu zen, aspaldiko eskakizunak onetsiz.

Hortik, bat-batean independentistak deskubritu genituen PSko nahiz UMPkoen artean Ipar Euskal Herriaren ezagupenaren aldekoak daudela.

Giza eragileen gehiengo ikusi zen karrketan gaindi beste milaka jenderen artean presoen hurbilketaren eta konponbide politikoaren alde: historikoa. Haatik, Manuel Valls Barne ministroaren gisakoen mespretxua baizik ez da agertu momentuko, hemengo gai guztieci buruz bezala funtsean. Esperantza piztu orduko atek hetsi nahi izateko mania.

Aurore Martinen Espainiaratze ahalkegarriak frogatu zigun, hamar mila pertsonako manifestaldi hark

baino hobeki, ez genuela hemen gaindi AHTren beharrik, Maule eta Madril junta baitaitezke bi oren laburrez.

Jakin zen ere, datorren martxoan 18. Korrika Baionara helduko dela, ilusio handia sortzen badu ere,

beste zenbat Korrika beharko ote den mahai gainean jarriko du, jakinik helduen euskalduntzearen arloan beste sartze bat burutu zela botere publikoen sostengu eta adierazpen argi eta sinpleenik gabe.

Anartean, Hizkuntzen Euro-kartaren errebisatzeko engaiamendua hartu zuen Parisek, berria ona bazen ez zuen gaitzeko efekturik ukan, jakin baitakigu euskararen geroaren gakoetarik txikiena baizik ez dela.

Ametz Arzallusek hirugarren aldikoz jantzi zuen Iparraldeko bertsolarien txapela; oroz gainetik Odei Barroso bigarren heldu zen.

Eta holako bizpahiru mila karakteretan nekez kokatu beste franko. Horrela da. Aspaldian landuak eta zabalduak bide egin du jada eta ez liteke gelditze-kotan. Urrats bat aitzina eta beste bat gibelera?

Beti berdin? Gaur nehork ez du hori erraten. Jakin gabe ere zer kausituko dugun itzultzean, argi da: Iparraldea ezberdina da. Definitiboki betikotasunean egunero bere doia ezberdinago. ■



Egunerokotasunean buru-belarri ari, inpresioa da deus ez dela aldatzen, deus ez gertatzen, fosilizaturik preso gaudela

DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

Ipurtargia

DESAGERTZEAR dagoen zizare argiduna. Ikusi nahi ez duenarentzat egiten da oharkabe, ordea. Hobe esanda, halako distira leuna ikusteko leku egokian ez dagoenarentzat desagertzen dira ipurtargiak. Animaliaz gain, itzaliz doaz urteetan begi-bistan izan ditugun ipurtargi batzuk. Kultura nahiz artearen arloan, feminismoaren arloan, militantzian, esperimentazioari, kreaioa benetan zabaldu eta luzatzen duen esperimentazioari, urteetan bidea eman diotenak. Beste asko itzaltzen doaz halaber haien grizpean. Hilberria den lagun batek esaten dio besteari: lasai,

erori zaitetz orain gorantz, egin jauzi akabatu zaituen espaloitik leihora, gorantz, itxi leihora, kendu bankua, itxi gortina, egizu erori eta zutitu berri denaren pape-rra eta kendu dizuten etxea bueltatuko dizute, distiratsu berriro. Argia galtzea ez da desagertzea. Ipurdiaz gain, zer litzateke argia ere buruan jartzea: ezkortasuna antolatzeke, hitzen benetako esanahia berreskuratzeko, gauzen nora-bide zehatza. Udako gau eder batean soroetatik eta bidegurutzetatik haratago doazen ipur-burutargiak. ■

